

laburpenak

Euskal Herria Guztion nazioa, guztiontzako nazioa

Estrategia sindikala: Burujabetza osoko gizarte berrirantz

Parte-hartzea bultzatu eraginkortasun bidean

5

B i l t z a r n a g u s i a

ILAB

25 urte lanean

EUSKAL HERRIA. GUZTION NAZIOA GUZTIONTZAKO NAZIOA

1.- NAZIOARTEKOA

Ultraliberalismoa

Ultraliberalismoak esplotazioa, pobrezia, ingurugiroaren hondamena, nazioarteko segurtasunik eza areagotu ez ezik, mundu osoko herritarrok gainean ditugun lau arazo larriak sortu eta bultzatu ditu: energia nuklearra, demografiaren hazkuntza, pobrezia eta planetak egunero jasan behar izaten duen hondamenaren ondorioz ezbehar naturalak.

Iraultza teknologikoa klase-borrokaren bereizgarri asko aldatu ditu, eta egiazko diktadura politiko-ekonomikoa inposatzen duten botere ekonomiko-finantziariek gaiztakeriaz erabili dute. Korrante "neoliberalak" aurrera segitzen dute, beren eragin politiko-ekonomikoa zabalduz eta, gainera, desmaila ekonomiko eta sozialak areagotzen dituen globalizazioa azkartuz. Panorama horretan sortu da Inbertsioen Itun Multilateralala (IIM), Multinazional eta Estaturik boteretsuenen kontrolpean dago nazioarteko erabakiune hau eta bere helburua, korporazio transnazionalen hedapena da.

Globalizazioak desberdintasun sozial eta ekonomikoak areagotzeaz gain, Estaturen funtzioak baldintzatzen ditu era zuzenean. Ondorioz, Estatuak beraien eskumen politiko-ekonomikoak galtzearen aurrean planteamendu ultranazionalistak indartzen dituzte.

Europar Batasuna interes finantzieroei begira garatzen da, eta korrante politiko-ekonomiko horiek baldintzaturik, Europar Batasuna eskuhartze eta sinesgarritasun urri-urriz diseinatzen ari dira, konbergentzia sozialari bizkarra emanez.

Sozialdemokraziak ez du alternatibarik gauzatzen

Sozialdemokrazia (kapitalismoa eta komunismoaren arteko 3. bidea) ez da planteatzen langileriaentzako alternatiba moduan, alderantziz, gero eta kutsadura ultraliberala handiagoa jasoz, talde finantziario-ekonomikoen laguntzaile bilakatzen ari da.

Europar Batasuna

Europar Batasunak ezaugarri duen konbergentzia ekonomiko-monetarioa globalizazioaren baldintzapean garatua dago.

Babes sozialari dagokionez, Europar Batasunean bertan Ipar eta Hegoaren arteko

dikotomia egotea, botere faktiko ekonomiko-finantziari handiek egokitzen jotzen dituzten gaietako konbergentzi politikaren ondorio da.

Autodeterminazio-eskubidea praktikan jarritako europar prozesuen aurrean Europar Batasunak era askotako jarrerak izan ditu, elkarren kontrakoak batzuetan. Areago, globalizazio-prozesuaren baitako interes politiko-ekonomikoez eginiko balorazioak baldintzaturik egon izan da, funtsez.

LABen ustez, ekonomikoki eta politikoki halakotzat hartuak izatea zor zaie Europako herriei; beraiek izan behar dutelako egiazko eragileak Europaren eraikuntza-prozesuan.

Europako sindikalismoa

Jarrera ahula eta iniziatibarik gabea. Eginkizun zeharo subsidiarioa europar konbergentzian.

Internazional sindikalek azken urteotan sakoneko aldakuntzak izan dituzte, mundu osoko egoera politiko-ekonomikoarekin batera. Sortu den testuinguruan alde ideologikoa murriztuz doa eta elkarrekin lanean aritzeko beharra areagotu da

Sindikatu Mundu-Federazioa (SMF, FSM)

Sindikatu Askeen Nazioarteko Konfederazioa (SANK, CIOSL)

Lanaren Mundu-Konfederazioa (LMK, CMT)

LABen jarrera

Burujabetza, elkartasuna eta herrien arteko elkarlanean oinarritutako nazioarteko harreman modelo baten aldeko apostua egiten dugu.

Herriek ez dute galdu behar bere burujabetza politiko eta ekonomikoa nazioarteko botereguneen eskuetan.

LABek, nazioarteko foro sindikaletan geure agerpena eta partehartzea gauzatzeko gestioari ekingo dio, eta Estatu gabeko nazioetako europar erakunde sindikalen arteko harremanak egonkortzea bultzatuko du.

2. EUSKAL HERRIA

Sarrera

Euskal Herriak bizi duen panorama sozio-politikoak, une honen garrantzi historikoaren eragina dauka: asmoak, konpromisoak eta ahaleginak batzeko premia dugu, Herri honek - berezko nortasun instituzional, ekonomiko, sozial eta kulturalaz jantzirik - bizirik iraungo duela ziurtatzeko.

Milurtearen hasiera honetan, edukin estrukturalaz konbergentea izango den plan-teamendu politikoa antolatu ahal izateko aukera dugu, Euskal Herriko hiritarren nahia askatasunez adierazteko moduko euskarri sendoak ipiniz.

LABen ustez, horrelako koiunturetan gizarteko sektore guztiek esku hartu behar dute aktiboki, bi Estatuak beren jarrera antidemokratiko eta behartzaileak bazter ditzaten.

Bidegurutze historiko honetan, hiru faktore eragileen inguruan protagonismoa eta konpromisoak hartu behar ditu sindikalismoak: Lizarra-Garazi, Euskal Herriaren egitura-keta, eta marko juridiko-politiko berria. Errebindikapen sozio-ekonomikoak prozesu politikoaren bultzadarekin bat eginik joan behar dute.

2.1. Balantzea eta kokapen politikoa

Ziklo baten amaiera

Ondorengo ezaugarriak ditu:

Bi estrategia aurrez aurre: alde batetik, nazionalista espainolek; eta bestetik, herri-tarrek askatasun osoz erabakitako mugak baizik izango ez lituzkeen Euskal Herria eraiki nahi dugun abertzale eta aurrerakoiok.

ELAren garatutako elkarlana: Arlo politikoan lortutako erreferentzialitatea; Lan Harremanetarako Euskal Esparrua; 95 eta 98ko Aberri Egune-tako agiriak; ...

Alternatiba Demokratikoa: Arazoari konponbide demokratikoa emateari dagokionez, ETAren eskaintza politikoa inflexio-gune garrantzitsua izan zen.

Irlandako prozesua, Stormonteko akordioa eta Euskal Herrian izan duten eragina.

Gasteizeko Parlamentuan izandako elkarlana: Trebiño, Kirol Legea, gehiengo berri baten gauzatzea.

Lizarra- Garazi akordioa eta ETAren su-etena

Lizarrako Akordioa da prozesu konstituzional-autonomikoaren hasieratik, euskal arazoan izaniko lehen inflexiogunea.

Lizarra-Garaziko Akordioak arazoaren izaera politikoa berretsi, konpontzeko bideak taxutu eta konponbidea argi eta garbi adierazten du: euskal herritarren nahia errespetatzea, hau da, Autodeterminazio-Eskubidea benetan aitortzea da kontua.

Lizarra-Garaziko akordioak eta ETAk, baldintza eta epe-mugarik gabeko su-etena praktikan jarrita, planteatu zuen ekimenak, fase politiko berriari ateak zabaldu dizkiote.

Prozesu eratzaille baten bidean, subiranotasuna praktikan jarritz

Prozesu demokratikoaren eta Euskal Herri subiranoaren eraikuntza politiko-instituzionalaren arteko lotura ezarri beharra dago, ezinbestean.

LABen ustez, subiranotasunezko estrategiaren klabea hauxe da: nazio-eraikuntzan subiranotasunezko egintzak gauzatzea; hasiera-hasieratik, gainera.

Euskal sindikalismoa ziklo-amaiera honetan

Euskal Herriari zor zaizkion eskubide demokratikoak lortu eta errespetatzeko borrokan eginkizun handia bete du euskal sindikalismoak.

Presoen eskubideen defentsan, Lizarra-Garaziko akordioa sustatzean eta bi Estaturen zapalkuntzari erantzuna ematean, LAB, ELA, EHNE, ELB, ESK, STEE, eta HIRUK garatu duten ekinbide bateratuak, Euskal Herriarentzako bake eta demokraziatzeko etorkizuna ekartzeko euskal sindikalismoak harturiko konpromisoa agerian utzi du. Langile gehientsuak bat datoz helburu horrekin, nahienetako bat baita hori denentzat.

1998ko apirilaren lanuzte partziala izan ondoren, 1999ko maiatzaren 21ean izaniko greba orokorrak argi eta garbi erakutsi zuen euskal sindikalismoaren nahia: eskakizun ekonomiko eta sozialetan (35 lanorduko astea eta soldata soziala) sujetu aktiboa izatea, alegia. Helburua: bi alor horietan CCOO eta UGTren eredu sindikalak (bere burua sistemaren eskuetan utzita, Euskal Herria eta beste herri batzuetako eskakizun demokratikoen kontra jardutea) agerian jartzen zuen mendekotasuna gainditzea.

Huraxe izan da Hego Euskal Herrian, euskal sindikalismoaren ekimenez eta protagonismoarekin, egin den eduki sozio-ekonomikoko lehendabiziko Greba Orokorra. Gainera, garrantzi handiko beste zerbait ere erakutsi du: euskal langileen borroka eta erreibindikazio espazio berariazkoa Euskal Herria dela onarturik, klaseen arteko elkartasuna praktikan jartzeko prest gaudela.

2.2. Prozesu fase honen ezaugarriak

Fase politiko hau kontzeptualizatuz

Bizi dugun prozesu honetan, ideologia, kultura politiko, osakera eta klase-interes desberdinak dituzten indarrek harturiko konpromizuek, izaera taktikoz elkarlanean aritzeko klase anitzeko esparrua osatzen dute; hortik sortuko da eraikuntza nazional eta sozialaren estrategiaren euskarri izango den subiranotasun eta askatasunezko zelaia.

Ezker Abertzaleak bizi duen une politikoan eskaintza politiko eta organizatiboa eratu behar du: ekimen hori, indar abertzale eta ezkertiarrek metatuz, eraikuntza nazional eta sozialeko ondare nagusietako bat izango da.

Aldakuntza honetarako klabeak

Sekula baino premiazkoak ditugu euskal indar politiko eta sindikalak, prozesu eratzaille berriak izango dituen eduki eta mekanismoak taxutu eta praktikan jartzeko.

Bi Estatuak Euskal Herrian duten demokrazi gabezia gizarte osoaren aurrean erakutsiko duen gehiengo politiko, sindikal eta soziala osatu behar dugu, proposamenak egin eta lehian aritzeko gauza izan gaitzen.

Osaketa hori antolatu behar dugu printzipio politikoak sendo edukita, konpromizuz, jarduera instituzionaletik eta mobilizazio sozialetik, desobedientzia eta intsumisioa bultzatuz.

Nahi eta konpromizu praktiko horietatik antolatu behar ditugu militantziazko geure jarduera eta ahalegin guztiak, bi Estatuak igortzen dizkiguten probokazioei erantzun demokratiko sendoa eman diezaiegun. Aurrerantzean, borroka politikoko metodoak agertoki berriari eta euskal gizartean sortuko diren konpromizu kolektiboen nolakotasunei egokitu beharko zaizkie.

LABek gogotik hartuko du esku Lizarra-Garaziren apostuan, Euskal Herri osoarentzat marko juridiko-politiko berria sortuko duen prozesu eratzaillea indartzen eta, esan beharrik ez, euskal langileen gaurko eta biharko eskakizunei erantzuten.

2.3. Prozesua eta euskal lurraldetasuna

Estatu espainiar eta frantsesak bitan banaturik, euskal sujetu nazionalaren bakan-keta areagotu egin du Hego Euskal Herriaren zatiketa administratibo-instituzionalak.

Euskal Herriaren barne-antolakuntzaz pentsamolde homogenizatzaile eta zentralista hartu izan du Ezker Abertzaleak. Ez zaio Estatu espainiarraren strategi regionalistari aurre egin.

Euskal sujetu nazionala izaki, gure etxea zein eta nolakoa den zehaztu eta halakotzat aitortzea hil edo biziko kontua dugu: honek jantziko du zentzuaz Euskal Herriko hirita-

rren nahia praktikan jartzea.

Udalbiltza sortzea, Euskal Herri osorako prozesu eratzaille berria bultzatzeko estrategian aurrerapausu galanta izan da.

3. INDEPENDENTZIA: DEMOKRAZIA POLITIKO ETA SOZIALAREN ALTERNATIBA

Sarrera

LABek, askapen nazionalaren helburua Independentzia dela eta askapen sozialaren helburua Sozialismoa dela aldarrikatzen du.

Horrenbestez, Europar Batasunaren baitan, langileriaren defentsa, justizia soziala eta demokrazia garantizatzeko Euskal Estatu osatuko duten erakunde subiranoak sortze-ari ezinbestekoa deritzo LABek.

3.1. Egungo Estatuak

Apunte historikoak. Estatuez gaineko markoak eta nazioen jaiotza.

Globalizazioaren ondorioa bi ahoko ezpata da: alderdi ekonomikotik bateraegile den bitartean, nazio-estatu zentralisten nortasuna ahuldu egiten du; Estatu horien izaera auzitan dagoenez, sakoneko berregituraketaren premia du.

Estatuez gaineko erakunde ekonomikoak (Europar Batasuna da irudi hori gorpuzten duena) indarrean egoteak, Estatu zentralisten barne-kontraesanak ugaltu eta areagotzen ditu, Estatu horien eginkizun eta argumentazio ideologikoa indargabetzen ari baita.

3.2. Independentzia, interdependentziazko barruti politiko-ekonomikoan

Inongo asmo autarkiko edo isolatzaileez zeharo beste aldera, geure ekonomia eta produkzio-bitartekoez baliatuz, Europako gainerako nazio eta herriekin elkarlanean jardun behar dugula onarturik, Euskal Herriaren independentzia lorpen handia izango da gestio kolektibo demokratikoa antolatzeko eta geure eredu sozial alternatiboan aurrerapausuak emateko.

Ekonomia bildu eta zentralizatzeko joeren aurka eta, era berean, harreman ekonomiko eta sozialetako dinamika desregulatzailleen gorakadaren kontra, independentziaren

erreibindikazioa funtsezko balioa da, gizarteak bat eginik eta elkartasunez aurrera egingo badu.

3.3. Euskal Estatua: Euskal Herriarentzako alternatiba

LABen aburuz, nazionalismo askatzailea eta internazionalismoa ez dira elkarren kontrako kontzeptuak, bata bestearen osagarriak baizik. Gogora dezagun geure nazioa eraikitzea eta beste herrialdeekin -langileekin eta sektore zapalduenekin - elkartasunez jardutea Ezker Abertzalearen elementu tradizionalak direla.

LABen iritziz, harreman laboralen desregulazioa eta gizartearen indibidualizazioa goresten dituzten joeren aurka, nazionalismoaren kohesio sozialak klaseen arteko elkartasuna eta borroka hobeto antola daiteke nazionalismoaren kohesio sozialetik. Euskal Herrian sindikalismo abertzale indartsu eta borrokalaria bizirik irautea dugu horren adibiderik argiena.

Jarduera demokratikoa, elkartasuna eta unibertsalismoa balioz hornitzen duen erreibindikazioa da independentzia.

Espazio supranazional ekonomiko-politikoak egituratzearekin batera, nazio-errealitateen garapena bultzatzea kohesio eta elkartasun soziala bermatzeko eta egonkortasuna demokrazia areagotzeko faktore garrantzizkoa dugu.

Euskal Estatuaren sorrerak Estatu frantses eta espainiarreko herrieekin gure harreman ekonomiko eta kulturalak areagotzeko balio beharko du.

Argi baino argiago utzi behar dugu euskal subiranotasuna - balizko euskal Estatua - ez dela inoren edo ezeren kontra eraikiko; alderantziz, desberdinak izanik, elkarbanatzeko gauza asko dituzten komunitateen arteko harremanen normaltasuna eta demokrazia areagotzen duen alternatiba da.

3.4. Euskal Herriaren independentzia: demokratikoki antolatu eta irabazi beharreko alternatiba

Independentziaren aldeko mugimenduak Euskal Herriko gizartearen gehiengoak proiektu horrekin bat egin dezala lortu behar du. Baldintza demokratiko horixe bete behar da, Euskal Herriaren independentzia eta askapen sozialeko proiektua legitimatzeko.

Metodo demokratikoen aldeko apustu horrek ezinbestekoa du ideia eta proiektu politikoak agertu eta eztabaidan jartzeko espazio demokratikoa. Eta espazio hori, euskal herritarren nahia errespetatuz eratu behar da, Estatu espainiar edo frantsesak inongo hipotekarik ezarri gabe eta inolako injerentziarik eragin gabe. Kontu hau erabatekoa da, Euskal

Herriak oraindik ere nozitzen duen arazo politiko biolentoa gainditu ahal izateko.

Aldarrikatzen dugun independentziazko proiektuak postulatu demokratikoak ditu abiagune, bai autodeterminazioaren sujetu politikoa ulertzeko eran (Euskal Herrian bizi eta lanean ari diren pertsona guztiak dira), bai Estatu espainiarreko gainontzeko nazionalitateetatik datorren biztanleriaren sektore horren ezaugarri linguistiko eta kulturalak errespetatzeari dagokionez ere. Horrek esan nahi du gure nazio izate hau ez dugula hartzen ideologia baztertzaille eta xenofobotzat, pentsamolde integratzaile eta kultura anitzek osatuzat baizik, Euskal Herriaren subiranotasun politikoaren proiektuan.

Independentziak eraikuntza nazionalaren ondorio izan behar du. Prozesu horretan, erabateko demokrazia politikoan eta subiranotasuna praktikan jarritz, independentziaren aldeko aukera hori gorpuztuz joango da Euskal Herriko gizon eta emakumeek osaturiko gehiengoa.

4. MARKO JURIDIKO-POLITIKO BERRIA. DEMOKRAZIA ETA SUBIRANOTASUNA

4.1. Gogoeta orokorra

Euskal Herriak bizi duen une historiko garrantzitsu hau denok egokiro barneratu eta proiektatu behar dugu, alor politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen, herri honetako hiritarrek beren burua antolatu eta erabakiak hartzeko gaitasuna berriro eskura dezaten lortzeko.

Autodeterminazio-eskubidea aintzat hartu eta praktikan jartzeko, euskal subiranotasuna irabazteko borrorak, batetik, eta geure harremanetan demokrazia eta egonkotasuna lortzeko, eta beste herri edo marko supranazionalekin elkertasunez aritu ahal izateko borrorak, bestetik, esanahi berbera dute biek.

Euskal Herriko hiritarren aniztasunetik gure Herriaren etorkizun politiko, ekonomiko eta soziala denon artean eraiki behar dugula aipatzen denean, gure baiezko erantzuna soil da, eta hala behar du izan, gainera: horixe baietz, Euskal Herrian bizi eta lanean ari garen guztion artean, herritarren nahiaz kanpoko injerentziarik eta hipotekarik gabe.

LABen iritziz, euskal erabakiunea ez da bere aurka daudenek kontsentsuatu beharreko kontua; aurretiazko baldintza da, geroago lortuko den kontsentsua - zeinahi eratakoa dela ere - euskal gizartearen aurrean baldintza berdinetan gauza dadin.

Prozesuak izango dituen zailtasunen eta jasoko dituen probokazio eta baldintzapenen aurrean, guztiz beharrezkoa da bere aldeko gehiengo sozial bat gauzatu eta aktibatzea. Euskal gizarte osoa da prozesu politikoa blindatu behar duena.

4.2. Demokraziazko eszenatokia

Euskal Herria eta Estatu espainiar eta frantsesaren arteko arazoa gainditzea eta egonkortasun politiko, ekonomiko eta soziala lortzea posible izango da baldin eta euskal nazioaren errealitatea aitortzen badute eta euskal herritarren nahia - inongo esku sartzerik edo hipoteka jartzerik gabe - aintzat hartzen badute. Bestela, ez.

Bake prozesuan, arazoaren konponketa-prozesuan, alderdi politiko guztiek eta bi Estatuak esku hartu behar dutela etsi-etsian sinesten dugularik, arazoari irtenbidea eman-go dion azken markorantz abiatzeko elkargune dugu Lizarra-Garazi.

Zeinahi erabakiune sortzekotan Lizarra-Garazin xedatutako ardatzetatik sortu beharko da:

- a) Izaera politikoko arazo historikoa da hau.
- b) Elkarrizketa eta negoziazioa konponbiderako gako bakarrak.
- d) Behin betirako akordioa bide guztiz demokratikotik: Euskal Herriaren hitza eta erabakia errespetatzea.

4.3. Marko juridiko-politiko berrirako bidean

Lurraldetasuna

Euskal Herriko sei herrialdeentzako eskaintza politikoa izango delarik, marko juridiko-politiko berriak bere baitan botere instituzionalaren barne-egituraketaren eredu zehatz bat eduki beharko du, Euskal Herriak alor politiko, sozial eta kulturean duen errealitate anitza kontutan hartuz.

Udalbiltzak, bizi dugun aldakuntza-fase honetan, prozesu eratzaille hau egituratzean sekulako eginkizuna bete behar du.

Eduki sozio-ekonomikoak

Subiranotasun bidetik marko juridiko-politiko berria egituratzeak gure gizartearen kohesioz eta orekaz antolatzeke eskuduntzez hornitu behar ditu euskal instituzioak, alor ekonomiko eta sozialean.

a) Lan-Harremanen eta Gizarte-Babeserako Euskal Esparrua (LHEE)

LHEEk, eskakizun orokor izatetik eduki, lanabes eta eskuduntzez beteriko elementu bilakatu behar da, hemengo sindikalismoari eta euskal langileriarri bidea berdintzeko, Euskal Herriko aurrerako aldaketa sozialaren protagonista izan daitezen.

Enplegu eta gizarte alorretan subiranotasun eta botere politikoz beteriko espazioa erreibindikatzen dugu, euskal langileen oraingo eta geroagoko arazo eta eskakizunei (langabezia, prekarietatea, soldata soziala, etab.) erantzunik eman ahal izateko.

Adiera horretan, exigitzen dugun LHEEren oinarriak hauek dira: babes sozial eta enplegu-gaietan berak izan dezakeen lege-ahalmen edo gaitasuna, Enplegu-Zerbitzu Publikoa sortzea eta Euskal Gizarte-Segurantzaz martxan jartzea.

b) Euskal Gune Sozioekonomikoa (EGSE)

Egungo nazioarteko harremanen markoan, EGSE egituratzea dugu geure ahalmen eta baliabideen araberrako garapen-eredua finkatzeko era bakarra; beste aldetik, garapen eredu horrek euskal gizarte osoaren eskakizunak asebetetzeko balio izan behar du.

Gaur egun Europar Batasuneko Estatuak duten eskuduntzen goieneko muga berbera duen EGSE artikulatuaz ari gara, politika ekonomiko eta sozialez erabakiak hartzeko eskuduntza duenez, herriek osaturiko Europaren eraikuntzan elkarkidetza eta elkartasunean oinarrituriko harreman-ereduaren araberrakoaz. Eraikitzen ari den Europa inolidario horren zeharo kontrakoa, hitz batez.

Euskal sektore publikoa (berau baita sistemaren eraginkortasunaren bermea eta garapen orekatuaren garrantia, alor sozial, sektorial eta territorialean) eta ekimen pribatua elkarren osagarri izatea da gure helburua.

Prozesuaren ezaugarriak

Subiranotasuna praktikan jartzean, euskal hiritarren nahia aintzat hartu edo ez hartzeak ezin du baldintzatu (eta ez du baldintzatu behar, gainera) marko juridiko-politiko berria operatibizatzerik.

Euskal subiranotasuna praktikan jartzea ezin egitura daiteke plebiszitu bakar batean; aitzitik, gutxiengoenganako errespetuz eta kohesio soziala bermaturik egituratu behar du gizarteak bere burua, piskanaka, euskal Estatuaren aldeko apustua adierazten duten gehiengo tinkoak alde daudela.

LABek hobesten duen alternatiba hau da: subiranotasunaren bidetik eta gehiengo politiko, sindikal eta sozialak eraginik, Euskal Herriko sei herrialdeentzako marko juridiko-politiko baten legitimaziozko ekitaldi batera edo plebiszitura biltzea. Marko juridiko-politi-

ko horren edukia erakunde politiko, sindikal eta sozialen artean adostu beharra dago, bi Estatuetik negoziazioaren uztarpean jarri gabe.

Udalbiltzak plebiszitu-ekitaldi hori proiektatuko lukeen sujetu politikoa aurretiaz finkatzeko lana garatu behar du.

Erritmoak. Borroka-bideak

Elementuetako beste bat izango da "denbora faktorea" eta hala jo behar dugu: ez da funtsezkoena, ez garrantzi handienekoa ere, baldin eta prozesuaren oinarriak garatuz badoaz. Estatuaren interferentzia eta jarrerak, gehiengo sozial berriek lehia demokratikoan aritzeko izango duten gaitasunak, indarren koerlazioaren bilakaerak eta bestek izango dute eragina prozesuaren erritmoan.

Borroka instituzional eta sozialean aritzeko tresna baketsu eta demokratikoak - kemen sozial guztiak, hitz batez - eragitea erabateko faktorea izango da prozesua aurrera bultzatzeko, eskema delegazionistei ihes egiteko, eta ikusle huts izateko tentazioari alde egiteko.

Marko berria eta Estatu-ereduak

Marko juridiko-politiko berri hori, subiranotasunez, Estatu frantziar eta espainiarreko ordenamendu juridikoetan nola egokituko den, bigarren mailako kontua da eta, hortaz, ez du gure estrategia baldintzatu behar.

"Eskubide historikoek" eta Estatu espainiarraren egituraketa federal asimetrikoak edo konfederalak marko juridiko-politiko berria Estatu-ereduan txertatzea ahalbideratuko lukeela eta antzeko kontuei buruzko eztabaidetan aritzeak ez du gure jarrera eta erritmoak baldintzatu edo aldarazi behar.

Prozesu eratzaila eta presoek askapena

Estatu espainiarrak eta frantsesak bertan eragin nahi izango dute, noski, prozesua desegonkortu edo hondatzeko, preso eta errefuxiatuen kolektiboa bahi gisa baliatuz.

Estrategia horretantxe kokatu behar dugu "Euskal presoak Euskal Herrira" errei-bindikazioa dela eta, bi Estatuetik gobernuak agertzen duten itxikeria. Gobernuen jarrera horri, prozesua protagonizatzen dugun indar politiko eta sindikalok elkarrekin eman behar diogu erantzuna; kontuan izan behar dugu, preso eta errefuxiatuen kontuan Madrilan eta Parisen estrategiari eman behar diogun erantzuna prozesuaren parte dela.

Azken hilabete hauetan presoek aldeko gizartearen mobilizazio unitarioak aurre-

rapausu handiak egin dituen arren, bada garaia erantzun sozialean eta instituzionalean jauzi egin dezagun. Horretarako, erakunde politiko, sozial eta sindikalek munta handiagoko konpromisoak eta inplikazioa asumitu behar ditugu.

Mugimendu sozial hori auzo eta herrietan zehar sustraitu eta zabaldu beharra dago, dinamika politiko orokorrarekin elkartuz eta aurrera eginez, "Presoak Euskal Herrira" erreibindikaziotik "Presoak kalera!" ezagunera igaro gaitezen.

Euskal sindikalismoa eta marko berria

Euskal sindikalismoak oro har eta LABek bereziki, prozesu politiko horren sujetu izan eta, horrenbestez, protagonismo eragilea hartu beharko dute: prozesuaren alderdi orokorretan eta, berezi-bereziki, Euskal Herriaren eraikuntza sozialaren euskarri izango diren edukietan agertu duten ekimenak eskaintzeko gaitasunean oinarriturikoa.

Azken urteotan eta ELArekin batera erreferentzialtasun handia geureganatu dugu, arazo politikoa gainditzeko eta fase eratzaille berria irekitzeko Euskal Herriak aurrera darman borroka kolektiboan.

Langileria eta abertzaleen gehiengoaren nahiak gauzatzea dela eta, berebiziko garrantzia duen fasea bizi dugu: orain, langileen eskakizun laboral eta sozialen (35 lanorduko astea eta soldata soziala, bereziki) alde diharduen bitartean, LABeko militantziak beste sektore politiko, sindikal eta sozialekin batera, konpromiso aktiboa hartu behar du, Euskal Herriarentzat bakea, demokrazia eta subiranotasuna erdiesteko.

ESTRATEGIA SINDIKALA. BURUJABETZA OSOKO GIZARTE BATERANTZ

1.- EUSKAL HERRIAREN EGOERA SOZIOEKONOMIKOA

Azken urteotan hazkunde garai bat bizi dugun arren, euskal sare sozio-ekonomikoak bere arazo estrukturalak mantentzen ditu. Ondorengoak ditugu garrantzitsuenak:

- Euskal ekonomiak espainiar eta frantziar Estatuetan hartzen diren erabakiekiko duen dependentzia estrukturala.

- Hazkunde garaia ez da erabiltzen gure sare produktiboari behar duen koherentzia eta egonkortasuna emateko. Ezta ere ondasunaren banaketarako eta lan harremanen demokratizaziorako estrategiak garatzeko.

- Hazkunde ekonomikoaren zatirik nagusia etekin enpresarial bilakatzen da.

- Gasteiz eta Iruñeako gobernu desberdinek euskal sare ekonomiko eta sozialean izan beharko luketen betebeharrak kohesionatzaileari uko egin izana.

- Ekimen instituzionalen enpresarien aldeko jarrera.

- Prezioen konpetentzian oinarritutako politika ekonomikoa, lan indarra deskualifikatuz.

- Gastu publikoaren murrizketa sistematikoa zerbitzuetan eta laguntza sozialean.

- Errenta altuenen aldeko kontra-erreforma fiskala, lan errentak diskriminatuz kapital errentekiko.

- Lan merkatuaren desregulazioaren areagotzea ekarri duen erreforma laborala.

Aipatutako balorazioak era garbian baieztatzen dira ondorengo datuekin:

- Ekonomiaren atzera-garaietan enpleguaren suntsiketa itzela den bitartean, ekonomiak hobera egitean jarduera ekonomikoaren eta aberastasunen gorakadaren zati bat besterik ez da enplegu bilakatzen.

- 1991tik 1998ra bitartean sortutako enpleguak behin-behinekotasun tasa %26tik %31,5era igotzea ekarri du.

- Langabezi tasa Europako batz-bestekoa baino bost puntu handiagoa da.

- Aktibitate tasa murrizta eta langabezia era berezian nozitzen dute emakumeek eta gazteek. Emakumeen langabezi tasak bikoiztu egiten du Europako batz-bestekoa, eta

gazteena Europakoa baino hamabi puntu handiagoa da.

- 1998an kontratu finkoak kontratazio osoaren %8a besterik ez dira izan.
- Epe jakineko aldikako kontratuen %79,3a hiru hilabete baino epe laburragorakoak dira.
- Behin-behineko kontratazioaren %27a ABLEn bidez egiten da.
- Prekariatatean eragin zuzena du lan istripuen gehitzean. 1997an, 1.000 langiletik, 53,3 istripu izan zituzten kontratu mugagabedun langileek eta 108,6 behin-behineko kontratudunak.
- 1998an langabezian zeuden pertsonetatik %30ak bakarrik lortu zuen laguntza sozialen bat.

2.- EUSKAL LANGILE MUGIMENDUAREN EGOERA

Gogoeta Nagusia. Sindikalgintzaren nondik norakoa.

Azken urteetan hartu diren neurri sozio-laboralak ez dira langileen baldintzen aurka egin diren eraso bakarrak izan. Estrategia neoliberalak, lan desarautzearen, lan harremanen bereiztearen eta behin-behinekotasuna eta gizarte bazterkeria areagotzearen bitartez, honek sindikalgintzari dakartzkion zailtasunekin, klase subjektuaren desegituraketan sakondu du.

Horrenbesteko erasoaren aurrean, negoziazio kolektiboaren esparrutik iharduteko aukerak oso mugatuak suertatu dira, eta derrigorrezkoa egiten zaigu sindikatuko esku hartze erasokorrari eta askoz ere sakonagoari ekitea, nahiz konfederazio estrategiari, nahiz sektore, lurralde eta lantokiko parte hartzeari dagokionez.

Gure 4. Biltzarrean, eraso honi aurre egitea helburutzat hartu genuen:

- Egoera kudeatzeko zegoen sindikatuko inertziaekin hautsiz sindikatuko ekintzarako bide berriak zabaltze gabe.
- Euskal Herrian kontzientziazio eta mobilizazio erantzuna egituratu behar da, eta Espainian, indarrean dagoen ondorioz gabeko gehiengoaren sindikatu ereduarekin hautsi behar da.
- Euskal Langile Mugimenduko bi oinarritzko eskakizunen inguruan Sindikatuko

Ekintzako ardatza argiak eta zehatzak mahaigaineratu behar dira: hots, enplegua sortzea, eta aberastasunaren eta lanaren banaketa.

Lortu genituen emaitzak aintzat hartzen ditugu, euskal gehiengo sindikala erasoan jar dadin urrats nabarmenak egin ditzan lortu baitugu, nahiz eszenatoki politiko nahiz sindikal berria sortzeko.

Testuinguru honetan bere biziko garrantzia hartzen dute gizarte soldata eta lanaldia murrizteko egin ziren mobilizazioek, zeinen bere gailurra 1999ko maiatzaren 21eko Greba Orokorrean eta proposamen hauen aldeko sindikatuen eta gizarte-espektroaren zabaltzean eman zen.

Baina babesaldia gainditu besterik ez dugu egin eta oraindik orain bide asko dago egiteko sindikatuko eraso gauzatu dadin sindikatuko esku hartze esparru guztietan: lantokitik abiatua, sektore, lurralde eta konfederazio mailaraino. Gazteak lanean hasteak, sindikatuko parte hartze egoki batez, sindikalgintza sendotzeko eta estrategiari indar berriak emateko balio behar du.

Hauteskunde sindikalei dagokienez egiaztatu LABek izan duen gorako joera, eta batik bat, LAB eta ELAn oinarritutako gehiengo sindikalaren finkapena.

Negoiazio Kolektiboaren Balantzea

Langileen mugimenduak bizi duen egoeraren atal honen baitan Negoiazio Kolektiboko Biltzar arteko balantzea sartzen dugu, eta bere atalik aipagarrienak ondoren aipatuko ditugu.

Negoiazio Kolektiboak lan harremanek eragiten dituzten egitura arazoei ekiteko oso mugatuak dira, zein eskuduntza maila urriaren ikuspegitik, zein benetako aukeretatik, honela, alderdi bakoitzak duen autonomiatik araudiak aldatu daitezzen, edota lan eta gizarte-politikarekiko funtsezko aldaketak lortu ahal izan daitezzen.

Lehenagoaz gain, Negoiazio Kolektiboaren antolakuntzan eta prestakuntzan aurrerapenak gertatu direnari deritzogu.

Aitzitik, aurrerapen horiek ez dute errebindikazio dinamikarekiko afiliazioaren parte hartzearen gehikuntzan eragin nahi genuen ondorioa izan. Ez dugu Negoiazio

Kolektiboan eta Ekintza Sindikalean dagoen eskuordetzearenganako joera etetea lortu.

Emaitzak, argilun handiak ditu, eta horien artean honakoak azpimarratuko genituzke:

- Lanaldiaren murrizpena guztiz eznahikoa da: 96/97an 2,45 ordutakoa; 97/98an 2,57 ordutakoa; eta 98/99an 3,38 ordutakoa.

- Urria, baina ez nahikoa eros-ahalmena berreskuratzeko.

- Soldata eskala bikoitzaren ugaritzea.

- Sektore publikoan Negoziazio Kolektiborako Euskal Markoak gero eta arrisku gehiago izango du.

- ABLEak ez erabiltzeaz nolabaiteko hobekuntzak gertatu dira eta AL Een ustezko egintzak kendu dira.

- EAEko Lan Harremanen Kontseiluan adosturiko akordioak, aparteko orduak eza-batzeaz eta plantilen berritzeaz lortu zirenak, aintzat hartzen dira.

3.- SUBIROTASUN ESPARRUA ERAIKITZEKO EKINTZA SINDIKALA

Sarrera

- Sindikatuen eraso Euskal Herrian berezko lan egitura sor dadin. Horretarako baldintza bakarra sindikatu eta enpresarien erakunde eta instituzioen artean erdietsi daitezkeen akordioak izango dira.

- Proposamenetan, parte hartzean eta prozesuaren garapenean euskal sindikal-gintzaren zeregina funtsezkoa izango da.

- Lan Harremanen Euskal Esparrua eta Euskal Esparru Sozio-Ekonomikoa egituratu daitezkeen edukitan eta epetan zehazturiko egitasmoa gauzatzea.

- Lan Harremanen Euskal Esparrua eta Euskal Esparru Sozio-Ekonomikoa gizarteko, sindikatuko eta erakundeetako gehiengoaren erabakiak garatu ahal izateko norgehiagoka estrategia.

Gure ihardueraren funtsezko edukiak

Lan Harremanen Euskal Esparrua eta Euskal Esparru Sozio-Ekonomikoaren sorrera eraikuntza nazionala egituratzeko baliabideak dira, eta baita egun indarrean dagoen marko juridiko-politikoaren gainditzeko indarren metaketaren ardatza ere. Bai bata, bai besteak, beraz, gizarte-izaera nabarmena izan behar dute eta bere xede nagusia ekonomia-

sistemaren gehiengo gizarte-eraginkortasuna lortzea eta euskal gizartearen eskariak asebetetzea izan beharko luke.

Jarrera honek, parte hartze esparru bata, zein bestea eratzen dituzten gaietan, sindikatuko mugimenduaren inplikazio handiagoa mugatzen du.

Lan Harremanen Euskal Esparrua eta Gizarte Babesa (LHEE)

Honako osagaiez osatua dago:

- Legegintza-eskuduntza osoa.
- Herri-botereak estrategiarekiko duten konpromizua.
- Euskal INEM eta Gizarte Segurantzaren sortzea.
- Sindikatuak benetan esku har dezaten kudeaketan.
- Negoziazio Kolektiboaren berezko esparrua. Hau sektore arteko, sektoreko eta lantokiko esparruan beharrezkoak diren akordioen bitartez egituratuz eta garatuz egingen da.

Euskal Esparru Sozio-Ekonomikoa (EESE)

Honakoa behar du gutxienez:

- Gutxienez, Europar Batasuna osatzen duten Estatuak egun dituzten subirotasun maila bera.
- Ekonomia-politika eta garapen eredua egituratzeko funtsezko erreferente gisa euskal sektore publiko indartsua.
- Demokratikoa, argia, gizarte-partehartzea bere baitan hartuko duena, deszentralizatua eta parte hartzeko baliabide eraginkorrak dituen sektore publikoaren eredua. Baliabide hauek, besteak beste, honakoak lirateke: industria eta zerbitzutako enpresa publikoa, euskal finantza sistema publikoa,....
- Sektore publikoko eredua, non zerga eta aurrekontu-politika bitartez, errenten birbanaketa, gizarte-babesa eta euskal gizartearen egituraketaren politika eraginkorra egingo duen.

Derrigorrezkoa egiten da berezko sektore politikak bultzatzeko gauza izango den euskal sektore publiko berria izatea, eta estrategia horren inguruan ekonomia-fluxu publikoak eta pribatuak egituratzea. Guk planteatzen dugun bezalako sektore publikoak, erai-kuntza nazionalako proiektuarekin konprometatua dagoena, gutxienez, ondoren aipatuko diren ekonomiaren sektoretan parte har dezan sektoreko egitasmoak behar ditu:

Industria-politika: - Derrigorrezkoa izango da Euskal Herriarentzako gizarte eta sindikatuen agenteekin negoziaturiko industria-egitasmoa lantzea eta enpresa publiko

industrialia eta dibertsifikatze eredia eta sektore koordinazioa bezalako baliabide egokiak sortzea.

Finantza-sistema: - EBko esparruan, Euskal Banku Publikoa bezalako baliabidea erabiliz, finantza politika egituraketan parte hartzeko eta gure industria-ehunean sektore pribatuko parte hartze handiagoa eragiten duen politika egituratzeko.

Lurralde Antolakuntza eta azpiegiturak: - Xede argiak daude: gizarte eta lurralde kohesioa; sektore eta lurraldeko egitasmoekin koordinazioa; eta gizarte eraginkortasuna, energia kontsumo hobezin eta ingurune-inpaktua bezalako irizpideen arabera emango zaie lehentasuna egintzei.

Elkartasuna Euskal Esparru Sozio-Ekonomikoan

Hauxe da helburu nagusia heldu diren urteetarako gizarte eredian aldaketa nabarmena gertatu dadin.

Euskal prozesu eratzailean sartu behar da, honela, euskal errealitatearen identitatea susta dadin, delako eskubideen onarpen eta erabilerarekin, delako prozesuan eskubide politiko, sozialak eta herrienak onetsi behar dira.

Gizarte-eskubidetzat hiritar orok bizi baldintza duinaz gozatzeko duen eskubidea hartzen dugu, eta bere kontrapuntua lanaren bitartez gizartea hobetzeko egiten den ekarpena da.

Helburua: Delako helburuak gauzatu daitezten baliabideen antolamendua antolatzea.

Euskal Osasun Sistema

Osasun sistema publikoa ardatz moduan hartzen duen euskal osasun esparrua sortzea. Bertan gauzatuko lirateke osasun politikak, baliabideen erabilpenak eta abar.

Euskal Hezkuntza Sistema

Euskal hezkuntza esparrua eta euskal eskola nazionala. Irakaskuntzarako sarrera ororentzat, aniztasuna eta desberdintasunaren onarpenaren bitartez bazterkeria egoerak ezabatu.

4.- EUSKAL GIZARTE BERRIA ERAIKITZEKO SINDIKATUKO EGINTZA

Giza-eskubideen onspena gizarte ereduaren aldaketarako gakoa da. Gako hau ondoren aipatuko diren elementuen bitartez gauzatzen da:

Langabeziarik gabeko euskal gizartea

Lanaren kontzeptua beharrezkoa den gizarte iharduerari loturiko lan kontzeptua parametroen baitan.

Enplegu sortzearen eta lanaldia banatzearen politika eraginkorrak.

Akordio marko edo sektoreen arteko akordio baten bitartez lanaldiaren murrizketa. Honako elementuak izango ditu:

- 35 ordutako lanastea berehala ezar dadin sektore eta enpresa ororetan lanaldiaren murrizketa;
- Akordioaren arautze eraginkorra;
- Lanaldiaren Murrizketa ezar dadin irizpide nagusiak;
- Lanaldiaren berrantolakuntzari eta enplegua sortzeari dagokionez sektore eta enpresa mailan egingo den negoziazio esparruetan ondoren emango den garapena;
- Administrazioak prozesua lagun dezan oinarriak finkatuko dira;
- Enplegurako herri mailako batzordeak, gizarte interesa dituzten lanpostuak sortzeko eta herriko garapenaren baliabide gisa, sustatuko dira.

Enplegu egonkorra eta kalitatezkoa

Behin-behinekotasunaren eta lan indarra ez-gaitzearen aurkako borroka ez da sindikatuko eskari hutsa, euskal eredu ekoizkorrari itxura emateko erarik errealistena baizik.

Hori dela eta, lanaldia murriztea ezin da lan harremanen, ordu baliabideen edo esplotazio mailen gehikuntzaren desauratze baliabide izan.

Lanbide Heziketa. Ekoizpen ehunaren garapenerako estrategia-elementu gisa agertuz, lan-indarrak gai egitea eta lan harremanen demokratizazioa.

Lan Osasuna. Ezartzen den harreman ereduaren emaitza negatibo garbi gisa aztertuz, langileengan kostu fisiko eta psikologikoz eragina duen eredu. Ez daiteke terapia berrigarrietatik soilik ekin, egun indarrean dirauten lan harremanek aldatuko dituzten prebentzio teraprietatik baizik. Hauek lan osasuna bere kostua kanporatzen den arrisku fak-

tore hutsa bihurtzen dira eta.

Euskal gizartearentzat eredu solidarioa

Epe motzean, gizarte soldata aberastasun banaketaren eskakizunaren funtsezko alderdia da.

LABen gizarte soldata edo oinarritzko errenta baten alde gaude, eta hau, gure aburuz, ordaindutako enplegua izatearen ezintasunaren aurrean bizi-baldintza duina bermatuko duen diru-sarrera ukatzeko gizabanakoak duen eskubidea da.

Euskal Herriko Gizarte Eskubideen Gutuna onar dadin eta egi bihurtuko dituzten aurrekontu-partidak bideratu daitezen proposatzen dugu.

Ez gara etsitzen gutuna Parlamentuetan onartzen den arte itxarotearekin, eta Europako batz bestearerik bereizten gaituen BPGren gaineko gizarte babesean dagoen 7 puntutako aldea ezabatuko duen baliabide esleipena eskatzen dugu premiaz.

Gizarte-mobilizazioa, epe motzean lanaldiaren murrizpena eta Gizarte Segurantza defentsan irauteko baliozko baliabide bakarra gisa.

Gizarte Soldatak euskal sistema publikoaren barruan prestazio egituratua izan behar du. Eta honela izan dadin, -berriz diogu-, arau eta Gizarte Segurantzaren kudeatze ahalmenak osoa izan behar du; eta baita Estatuari argudio gutxiz heltzen dion eskuduntza kentzeko gogo-politiko ere. Baina, hala ere, Estatuak delako eskuduntza Espainiako batasun politiko eta ekonomikoaren giltzarria bailitzan dihardu.

Baztertze Soziala eta Ekintza Sindikala

Lan munduan eta hortik at.

Bazterkeriaren aurkako borroka euskal langileen mugimendu osoak eta gizarte guztiak esku har dezan behar du. Hau ez da baztertuak daudenek ebatzi behar duten arazoa, baina bada baztertu guztiek era eraginkor batean parte hartu behar duten borroka.

Ez gara gauza izan LAB-Langabetuak sortu genuenean zabaldu ziren itxaropenak bete zitezten, baina honek ez du esan nahi ez dugunik bazterkuntzarekiko parte hartzeko ildorik:

- Bazterkuntzaren aurka diharduten gizarte mugimenduekiko estrategiak partekatu eta koordinatu.

- Berezko errebindikazioak ohiko sindikalgintzan integratu eta gure ohiko antolamenduko esparrutan delako lan baldintzak zuzenki jasaten eta pairatzen dituzten pertsonak sartu.

- Baztertuak daudenekin diharduten afiliatuekin gure parte hartzea homogeneizatu behar dugu eta kasu bakoitzean egokien deritzogun antolatze neurriak egituratu.

5. - EKINTZA SINDIKAL EREDUA

Ezaugarri orokorrak

Ekintza sindikal erreibindikatzalea, tinkoa.

Ekintza sindikal solidarioa.

Ekintza sindikal oinarrikoa.

Sindikatura, langileen zerbitzurako tresna.

Sindikatura, lan harremanak demokratizatzeko tresna.

Formakuntza sindikala, kualifikaziorako estrategia.

Euskal Langile Mugimendua egituratzeko ekintza sindikala

Arloen papera: Emakumeen Arloa. Gazteen Arloa. Pentsionistak. Autonomoak.

Negoiazio Kolektiborako estrategia

- Lanaldiaren murrizketa.

- Soldaten eros-ahalmenaren hobetzea.

- Lan Harremanetarako Kontseiluko akordioen gauzapena.

- Prekarietatea, azpikontratu eta ABLEen aurkako borroka.

Ekintza sindikala genero ikuspuntutik

- Diskriminazioari era tinkoan aurre egiteko ekintza sindikala.

- Sexu-generoagatiko eskusio laboralaren aurrean garatu beharreko iharduera sindikala lan merkatuaren barnean eta kanpoan.

- Berdintasunean oinarritutako ondasunaren banaketa.

- Gizarte soldata gizabanakoaren eskubide moduan.

- Emakumeen lanaren kontura egiten ez den lanaldi murrizketa.

Gazteria eta ekintza sindikala

Gazteria mugimendu sindikalean sartzearen beharra.

Gazteriaren lan baldintzen aurrean ekintza sindikal eraginkorra gauzatzeko konpromizua.

Ekonomia soziala

Interbentzio sindikalaren beharra. Ekimenerako ardatza: sail sindikala.

Egitura kooperatiboaz baliatu sail sindikala garatzeko.

Ekintza sindikala eta euskararen normalizazioa.

- Euskara lan indarra eta produktuaren balioa gehitzeko elementu moduan.
- Lan mundurako plan estrategikoa.
- Normalizazio politikak planifikatu, kudeatu eta ebaluatzeko organu bat sortu.
- Euskararekiko plangintzak lanbide heziketa jarraitako planetan sartu.

6. - EKINTZA SINDIKALAREN BATASUNA

Ekintza sindikaleko helburu amankomunek inguruko elkarlanean errealitate bat garatu da Euskal Herrian.

Azken urteotako esperientziak ekintza sindikal bateratuaren nukleoa LAB eta ELAren arteko elkarlanean dagoela esaten digu, elkarlan hori beste batzuei zabalik dagoelarik.

LAB eta ELAren arteko ekintza sindikal bateratua funtsezkoa da eraikuntza nazional proiekturako.

Era berean, aktibo estrategikoa bat da euskal langile mugimendurako.

Lan Harreman eta Babes Sozialerako Euskal Esparrua eta Euskal Esparru Sozio-Ekonomikoa lortzeak ekintza sindikal bateratuan sakontzea eskatzen du.

Ekintza sindikal bateratuaren garapen egokiak eragin zuzena du euskal langile mugimenduaren interlokuzio gaitasun eta mobilizazio ahalmenean.

PARTE-HARTZEA BULTZATUZ ERAGINKORTASUN BIDEAN

Zuzendaritza-organu konfederalak

Biltzar Nagusia

Sindikatuako zuzendaritza-organu gorena da eta 500 kidek osaturik dago. Sindikatuaren jarduerako ildo orokorrak adierazi eta onetsiko ditu.

Biltzar Nazionala

Biltzar Nagusien arteko epean, hauxe da zuzendaritza-organu gorena eta 120 kide nominalek osatuko dute, zenbaki hau 125era handitu daitekalarik, gehienez ere.

Komite Nazionala

Biltzar Nazionalen artean dagoen zuzendaritza-organu gorena da. Era guztietako instantzien aurrean, Sindikatuaren ordezkaritza ofiziala izango du eta 39 pertsonak osatuko dute:

- Idazkari Konfederalak (13):

- Idazkari Nagusia
- Ekintza Sindikala eta Politika Sozialerako Idazkaria
- Negoziazio Kolektiborako Idazkaria
- Komunikazio Idazkaria
- Finantzak, Azpiegiturak eta Gizabaliabideetako Idazkaria
- Gai Ekonomikoetarako Idazkaria
- Gai Juridikoetarako Idazkaria
- Emakume arloko Idazkaria
- Gazte arloko Idazkaria
- Nazioarteko Harremanetarako Idazkaria
- Hezkuntza Idazkaria
- Barne Koordinaziorako Idazkaria
- Antolakuntza Idazkaria

- Sektoreetako Idazkariak (9):

- Eraikuntza, Zurgintza, Beira, Zeramika etab.

- Kimikak, Energia, Oihalgintza, Papergintza, Arte Grafikoak, ..
- Metalgintza
- Merkataritza, Ostalaritza, Garbiketa,
- Garraio, Telekomunikazioak eta Arrantza
- Finantza (Banka, Aurrezki Kutxak eta Aseguruak)
- Irakaskuntza (Publikoa, Pribatua, Ikastolak)
- Osasungintza (Publikoa, Pribatua, Gizarte-Asistentzia.)
- Administrazio Publikoak (Udalekoa, Autonomikoa, Estatukoa, Posta, etab.)

- Eskualdeetako Idazkariak (17):

- Aiara. (A)
- Errioxa-Arabako Bailarak-Arabako Mendialdea. (A)
- Gasteiz-Lautada. (A)
- Bilbo. (B)
- Busturialdea-Lea. (B)
- Durangaldea. (B)
- Ezkerraldea-Enkarterria. (B)
- Hego Uribe-Arratia. (B)
- Ipar Uribe-Txoriherri. (B)
- Debaldea. (G)
- Donostia-Hernani. (G)
- Kosta-Urola. (G)
- Oarso-Bidasoa. (G)
- Tolosa-Goierri. (G)
- Erribera-Erdialdea (N)
- Iruñea-Iruntzu-Baztan. (N)
- Sakana-Larraun. (N)

Komite Exekutiboa

Komite Nazionaleko Idazkari Konfederal guztiek osatzen dute (13 pertsona). Bere eginkizuna da Komite Nazionala dinamizatzea eta goiko organoen erabaki eta xedapenak martxan jarri eta bete daitezen bermatzea. Komite Nazionalaren delegazioz, era guztieta-ko kontu eta instantzien aurrean, sindikatuaren ordezkari izango du.

Lurralde egitura, eginkizunak eta osaketa

Eskualdeko Idazkaritza

Egitura hau indartzea izango dugu, Biltzar honetatik aurrera, antolamendu-alorreko erronka handienetako bat. Horretarako, organo horren erreferentzialtasun eta legitimitatea dezente hobetu beharra dago Sindikatuaren bertan. Eskualde guzti-guztietan helburuak zuzen planifikatu eta zehazteak berebiziko garrantzia izango du, gerora behar bezala gartuko badira.

Tarteko edo bitarteko egitura honek Sindikatuaren eragileetako bat izan behar du etorkizunean. Helburu hori lortzeko, apustua zehazki erakusten duten bi elementu azalduko ditugu: batetik, eskualdeko idazkariak Komite Nazionalako kide izan eta bertan parte hartu beharko dute; bestetik, eskualdean dauden sektoreetako idazkariak eta arloek eskualde horretako idazkaritzan esku hartu behar dute. Ondorengo osaketa hau izango du:

- Eskualdeko Idazkaria.
- Aholkularitza juridikoko arduraduna.
- Sektoreetako ordezkariak.
- Gazte arloko ordezkaria.
- Emakume arloko ordezkaria.

Herrialde bakoitzeko Idazkari Teknikoa, bere aportazioa eraginkorren gertatuko den Eskualdeko Idazkaritzan integratuko da.

Herri Biltzarrak

Gure eskuhartze sozio-politikoaren garatzeko baldintza hoberenak sortzen diren tokira gure Sindikatua ahalik eta gehien gerturatzea planteatzen dugu. Herri Biltzarren sorrera eta geroagoko dinamika, beraz, marko lokal horren osaketa eta ezaugarri ekonomiko, politiko eta sozialekin hertsiki lotuta dago.

LABeko Herri Biltzarra egoteak adierazi nahi du Sindikatuaren presentzia bertatik barreiatzen dela herriko alor guztietara.

Marko horretan bultzatu behar dugu aldian-aldian afiliatuak batzarrean biltzea, afiliazio guztiarekin duten kontaktua eta harremana hobetzeko. Horretarako, Sindikatuaren dinamikan esku har dezaten gomitatzea egin behar diegu denek, haiek ere partehartzaile senti daitezen.

Herri Biltzar bakoitzak bere osaketa inguruko errealitateari egokituko dio. Hona hemen, nolana ere, osatzen ahalegindu behar dugun gutxienezko lantaldea:

- Herri Biltzarreko arduraduna. (Ekintza Sindikala eta Antolakuntza).
- Sindikatuaren zabalkuntzaren arduraduna.
- Gazte arloko ordezkaria.
- Emakume arloko ordezkaria.
- Garrantzi handieneko Sekzio Sindikalen ordezkariak.

Eskualdeko Afiliatuen Asanblada

Sektore egitura, eginkizunak eta osaketa

9 sektore osatzea proposatzen da:

- Eraikuntza, Zurgintza, Beira, Zeramika etab.
- Kimikak, Energia, Oihalgintza, Papergintza, Arte Grafikoak, ..
- Metalgintza
- Merkataritza, Ostalaritza, Garbiketa,
- Garraio, Telekomunikazioak eta Arrantza.
- Finantza (Banka, Aurrezki Kutxak eta Aseguruak)
- Irakaskuntza (Publikoa, Pribatua, Ikastolak)
- Osasungintza (Publikoa, Pribatua, Gizarte-Asistentzia.)
- Administrazio Publikoak (Udalekoa, Autonomikoa, Estatukoa, Posta, etab.)

Sektoreko Biltzar Nagusia

Hauxe da sektoreko organo gorena eta, aldi berean, erabaki konfederalak asumituta, eskuhartzeko jarraibideak egokitzeko arduraduna.

Sektoreko Komite Nazionala

Zuzendaritza-organo hau Sektoreko Biltzar Nagusiak hautatuko du eta sektorekoan antolamendua eta eskuhartzea garatzeaz arduratuko da.

Sektoreko Idazkaria Komite Nazionallean eta Sektoreko Eskualdeko ordezkariak Eskualdeko Idazkaritzan agertzeari esker, sektorean osoko eskuhartzea gauzatzeko beharrezkoa den giltzetako bat eskuan dauka organo honek. Hurrengo eran osatuko da:

- Sektoreko Komite Exekutiboko kideak.
- Sektoreko Eskualdeetako Ordezkariak

Sektoreko Komite Exekutiboa

Osaketa hau orientatibo hutsa da, sektore bakoitzak bizi duen errealitatearen eta nozitzen dituen premien arabera egokitu beharrekoa:

- Sektoreko Idazkari Nagusia.
- Azpisektoreetako arduradunak.
- Sektoreko Negoziazio Kolektiborako arduraduna.
- Sektoreko Antolakuntza.
- Osoko beste ardura batzuk.

Sektoreko Eskualdeko Idazkaritza

Organo honen osaketa malgua da eta finkatuta ditugun eskualde guztietan, bakoitzaren berariazkotasun, ezarpen eta garapenaren arabera da.

- Eskualdeko arduraduna.
- Sektoreko arduradun lokalak.
- Sektorearen iritziz, enpresa erreferentzialetako ordezkariak

Sektoreko Eskualdeko Afiliatuen Asanblada

Sekzio Sindikala Lantokiko afiliatu guztiek osatzen dute.

Eskuhartze arloak

Antolamenduaren ikuspegitik egin dugu arloen karakterizazioa, langileriaren egungo zatiketa-egoerari dagokion bezalaxe.

Lan-munduan sartzeko bestelako zailtasunak ere dituen biztanleriaren parte jakin baten aurrean, emakume eta gazteriaren kasuetan bezala, arloak berebiziko garrantzia duela ikusten dugu. Hala ere, baina ezin gaitezke mugatu horietara bakarrik, eta egoera berezian dauden beste sektore batzuei ere erantzun egokia emango dieten eskuhartze-arloak ere garatzen ahalegindu beharko dugu aurrerantzean (jubilatatu eta pentsionistak, autonomoak, e.a.)

"Eskuhartzeko marko" bezala definitzen diren arloak funtsez lurralde-markoan daude kokaturik baina, bakoitzaren ezaugarriak kontuan izaki, sektoreetan edo gainontze-ko egituretan ere kokatu ahal izango dira.

Asanblada Nazionala - Biltzar Nazionala

- Komite Exekutiboa
- Lurralde edo sektore-markoetan parte hartzen duten pertsonak.

Komite Exekutiboa

- Arloko Idazkaria
- Arduradun Nazionalak
- Eskualdeetako arduradunak

Delegatuen asanbladak